

ELGOIBARKO XXVIII. GAZTA SARIKETA
NAFARROA PLAZAN
2009-08-29 LARUNBATA

1. ATALA

Lehiaketan **latxa edo/eta karranzana** ardi esnearekin gazta egiten dutenek parte har dezakete, beti ere, beraien urteko produkzioa, 30.000 kilo baino gutxiagokoa bada.

2. ATALA

Lehiaketarako izena, abuztuaren 29an goizeko hamarrak baino lehen eman behar da **Elgoibarko Kultur Etxean**. Gaztak antolatzaileei entregatuko zaizkie ordu hori baino lehenago. Ordu hori igaroz gero, ez da izango lehiaketan parte hartzeko aukerarik.

3. ATALA

Ez da onartuko gazta zatirik, ezta kilo bat baino gutxiagoko gaztarik ere.

4. ATALA

Partehartzaileek **gazta bat** aurkeztu beharko dute lehiaketarako. Hala nahi izanez gero, partehartzaileek beste gazta bat saldu ahal izango diete antolatzaileei. Gazta bakoitzeko 25 euro ordainduko da. Antolatzaileek erositako gaztak, lehiaketan sartzen ez direnak, itxura onenaren sari berezian parte hartuko dute. Sari hau jendaurreko erakusketan erabakiko da.

5. ATALA

Sariak:

1. 480 euro txapela eta garaikurra.
2. 400 euro eta garaikurra.
3. 350 euro eta garaikurra.

6. ATALA


Gaztarekin batera, artzainak, osasun erregistroa eta kaseinaren plaka aurkeztu beharko ditu.

7. ATALA

Sariketan parte hartzen duten guztiek salmenta-postu bat edukitzeko eskubidea izango dute. Postua Udalak berak jarriko du, eta gazta izango da bertan saldu ahal izango den gauza bakarra. Salmenta postuak jartzeko eskabidea abuztuaren 19a baino lehen egin beharko da.

AZKEN OHARRA

Antolatzaileek, aurrez aditzera eman gabe, araudi honetako edozein baldintza aldatzeko eskubidea dute. Epaimahaiaren eta antolatzaileen erabakiak apelaezinak dira.

ANTOLATZAILEAK: KALAMUA ELKARTEA, ELGOIBARKO UDALA ETA  kutxa
Kultura Saila: Tel: 943-742158 / Faxa: 943-744161
e-maila: kultura@elgoibar.org